



BEZEROEKIN ERLAZIOA

Gure bezeroekin erlazionatzeko gure sare sozialak erabiliko ditugu, gure sare sozialak aurkituko dituzte kalean jarritako karteletan eta iragarkietan.

Bezeroak, gure enpresa ikusiko dute leku eder bat beraien seme-alabak denbora pasatzeko, gure udalekuetan seme-alabak ez dutelako bakarrik kirola egingo, baizik eta, printzipio batzuk ere ikasiko dituztelako, adibidez; beste arrazako jendea gu bezala tratatzea, beste gaitasun batzuek duten ahurrak errespetatu eta lagundu behar zaiela...

Guri gustatuko litzaiguke gure bezeroak deskribatzea beraien seme-alabentzat gauz baliagarriak ikasteko leku ezin hobea eta haurrak lagunak egiteko toki apropos bat. Guraso asko gaur egun kexatzen dira beraien seme-alabak egun guztia etxean daudela, baina, gurekin haurrak naturarekin lotura edukiko dute.

Gure enpresaren bezeroak nahi dute gure udalekuak leku eder bat izatea beraien seme-alabak uzteko, gainera, leku bat non beraien seme-alabak asko ikasiko duten, ez bakarrik kirola egiten, bizitzan zorte txarra eduki duten jendeari laguntza ematen eta ez egitea desberdintasunik.